

UDAL BATZORDE EZ IRAUNKORRA SORTZEKO PROPOSIZIOA

UDALEKOTZEAREN INGURUAN

EH BILDU udal taldeak, Udaltzaren Organo Araudiko 148. artikulua oinarri, Udalekotzearen inguruko Batzorde Ez-iraunkorra sortzeko proposizioa luzatu nahi dio Udaltzari, datorren udaltzarrean landu dadin.

Eztabaida iraunkorra da Herri-administrazioek hartzen dituzten egituraketa ereduak eta zerbitzu publikoak eskaintzeko duten ereduak. Azken hamarkadetan baina, joera nabaria izan da zerbitzu publikoen hobekuntza eta merketzea, beraiek kanporatzearekin, pribatizatzearekin edo-eta administrazioetik bereizitako erakunde eta sozietateak osatzearekin lotu izan dela. Aldiz, esperientziak erakutsi du kasu askotan zerbitzuen okertzea ekarri duela, eta iragartzen ziren merketzeen ordez zerbitzuen kostuen garestitzeak ekarri dituela, herritarrengan ere eragina izanik. Zer esanik ez bertako langileen lan-baldintzen ikuspuntutik.

Beti berme publikoaren menpeko eta herritarrentzako zerbitzu eraginkorrak izateko helburuan, bidezkoa da egun Udalak dituen erakunde eta esleitutako zerbitzuen inguruko gogoeta egitea; eraginkortasuna, lan-baldintzak, xede publikoa eta noski, baita bideragarritasun juridiko eta ekonomikoaren ikuspuntutik. Zentzu honetan, formula eraginkorrena batzorde ez-iraunkor bat sortzea da, udaltzako talde guztiok sakon hausnartu eta aztertu ahal izateko zein erakunde lehengoratu daitekeen, edo-eta zein amaitutako zerbitzu-esleitu udalekotu daitekeen.

Hainbat adibide ematearren, aurreko legegintzaldian Euskara Patronatua lehengoratu eta Euskara Zerbitzuan bilakatu zen, administrazioan txertatuz, eta beranduago TAO zerbitzua Loiolako Erriberetan udalekotzen joateko lehen pausua eman zen. Gaur egun, aukera ezberdinak zabalik daude Erakunde Autonomoren baten lehengoratzearekin, zein amaitzear diren kontratu/zerbitzu batzuekin.

Esandakoagatik, EH Bildu udal taldeak honako **PROPOSIZIOA** aurkezten du datorren Udaltzaran landu dadin:

Batzorde Ez-iraunkorra sortzea udal Erakunde Autonomoen lehengoratze zein kanporatutako eta esleitutako zerbitzuen udalekotzearen inguruan proposamen zehatzak aztertzeko.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Osaketa: Talde politiko bakoitzetik kide bat bozka ponderatuaren eskubidearekin eta Kontu-hartzaile nagusia, Idazkari nagusia eta Langileen Batzordeko bi ordezkari bozka eskubiderik gabe.

Gonbidatuak: Kasuan kasu, dagokion erakundeko langileen batzordea gonbidatuko da.

Iraupena: Urtebete

Bileren erregimena: Gutxienez bilera bat hilabetero.

2015eko urriaren 9an, Donostian

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko bozeramailea